

## Bost film labur Biterin, martxoaren 3an

■ Basurdea, Belarra, Dortokaren uharte, Terminal eta Topeka filmak botako dituzte Dobera Euskara Elkartearen eskutik ■ 2003an arrakasta handia izan duten euskerazko 5 film dira.

IAZKO euskerazko 5 film laburrik onetsuenak herriz herri emango dituzte, Topagunea Euskara Elkarteak antolatu eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagunduta. Dobera Euskara Elkartearen eskutik etorriko da emankizuna Hernanira eta egingo dituzten 22 saioetatik lehenengoa izango da Hernanin: Biterin, martxoaren 3an, arratsaldeko 19:30etan. Bost filmeen ondorenean Asier Altuna zuzendari bergararrak hitzaldia emango du.

Gaur egunean ez dago film laburrak ikusteko toki edo zirkuitu asko, eta hori izan da Topagunea film laburren emankizun hau antolatzerantz animatu duena. Hernanin ezezik Nafarroa, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako 21 herritan emango dituzte film labur hauek, herrietako Euskara Elkarte bitartez. □

### **BASURDEA:**

Mikel eta Joxi arrantzaleek basurdea bilatuko dute mendian, perretxiko bila dabilzala. Historio odoltsu, gogor eta neketsua biziko dute.

**Zuzendaria:** Ane Muñoz Mitxelena hondarribiarra.

**Aktoreak:** Anartz Zuazua, Xinboen Alkain eta Ernesto Barrutia.

**Iraupena:** 14 minutu.

### **BELARRA:**

Emakume bat baserri alboko belardira irtezen da arropa esekitzera, semea besoetan duela. Urrutian gizon bat ari da segan. Bapatean saskian exerita dagoen haurra altxa eta belardian barneratzen da...

**Zuzendaria:** Koldo Almandoz donostiarra.

**Aktoreak:** Iker Pernas, Ainara Gurrutxaga eta Peru Almandoz.

**Iraupena:** 10 minutu.

### **DORTOKAREN UHARTEA:**

Espaziotik izaki bat etortzen da dortoka formako uharte batetara. Izakia Ainhoa da, asma duen 9 urteko neska. Gau batez uhar-

tean irauteko desafioa izango du.

**Zuzendaria:** Maru Solores donostiarra.

**Aktoreak:** Ane Ormazabal, Egoitz Lasa, Gerardo Romero, Javier Gurrutxaga eta Maiken Beitia.

**Iraupena:** 15 minutu.

### **TERMINAL:**

Autobus gidari batek susmoa du hil egin dela sarritan ikusi ohi zuen neska *yonkia*. Damu zaio lagundu ez izana. Baina, handik gutxira neska bizirik agertzen da...

**Zuzendaria:** Aitzol Aramaio ondarrutarra.

**Aktoreak:** Miguel Ángel Solá, Blanca Oteiza, Ramon Barea, Marivi Bilbao eta Loli Astoreka.

**Iraupena:** 12 minutu.

### **TOPEKA:**

Herri txiki bateko gizonak zirkulu bat osatzen dute bertako plazan. Zirkuluaren erdian bi ahari talkan ari dira...

**Zuzendaria:** Asier Altuna bergararra.

**Aktoreak:** 2 ahari eta 80 lagun.

**Iraupena:** 3 minutu eta 30 segundo.

## Ezker Abertzaleak ekitaldi politikoa ostegunean

HERNANIKO Ezker Abertzaleak ekitaldi politikoa egingo du ostegunean Biterin, 20:00etan, *Espainiari ez, autodeterminazioa* lemaekin. Antolatzaileek zabalduko prentsa oharra dionez erreprezioa eta erasoak jasan dituzten pertsonak eta kolektiboek hartuko dute parte ekitaldian. Hernaniko Ezker Abertzaleak adierazi du "Espainiari ez eta Euskal Herriari bai esateko" garaia dela. Ekitaldian hauteskunde kanpainako nondik norakoak ere aurkeztuko dira. □

## ■ ARRAUNA


### Hernanik laugarren egin zuen Orion Batel ligako estropadan

HERNANIKO Arraun Elkarteak laugarren egin zuen joan den larunbatean Orion, Batel ligako lehenengo estropadan. Batela infantil eta kadete neskek osatu zuten eta Aita Mari irabazleak baino 25 segundo gehiago behar izan zituen. Hernanik San Pedro eta Orio B bezalako traineruak atzean utzi zituen, 5:32:50ko denbora eginda. □

## ■ BOLA

### Migel Arrozpide eta Antonio Miner, gora

LEGAZPIN jokatu zen Bolako Erregularitate txapelketako tiraldia eta bi hernaniar hirugarren eta laugarren jarri dira klasifikazio orokorrean. Migel Arrozpide eta Antonio Miner 222 brillarekin daude orain, aurrena dijoan Josu Lasa lasartearrak baino 5 brila gutxiagorekin. Legazpin, Andoni Berasategi idiazabaldarra gelditu zen aurrena 47 brillarekin. Migel Arrozpidek ere 47 bota zituen eta hirugarren gelditu zen eta Antonio Minerrek 7garren egin zuen 45 botata. □



Hautzaindegiko bi ume.

## Hezkuntza Batzordeak hartzaindegia aztertuko du gaur

GAUR arratsaldean Hezkuntza, Formazio eta Lan Batzordeak biler berezia egingo du hartzaindegia inguruko bi punturekin. Puntu bat hartzaindegiko tasei dagokio, eta Batzordera dijoan proposamena datorren kurtsoan % 2,6 igotzea da, KPI (IPC)aren igoera estimazioa. Azkeneko erabakia hilabete honetako Plenoak hartuko du seguruen. Bigarren puntua, hartzaindegia leku berriarena da. Txema Mercado Batzorde buruak Kronikari adierazia dio proposamena dela Hartzaindegi berria Monteseke azpi batean joatea, lekua hartarako egokituta. Transparkeren egindako azterketek esaten dute hango zoruak mugimendu arriskuak dituela eta haur eskolak Udal jangelan jarraitzen du. □

**TILIN & TOLON**  
BELAR DENDA

- DIETISTA
- NATURISTA
- MEDIKUA

TERAPIA NATURALAK  
KONTSULTAK  
Ttilin Ttolon Belardenda  
Txirrita 10 - Tel.: 943 55 56 94

**MINER**  
JANARIDENDA  
Denda ixten du.  
Likidazioak otsailaren 20tik aurrera.

Hainbat tresna salgai:

- Mural frigorifikoa (motorra kanpoan dijoana)
- Arkoi Konjeladore bat
- Kortadora
- 2 pixu (1000 PLU memoriarekin)
- Zintzilikatzen den pixua
- Estanteriak egurra, ispilua eta argiarekin eta normala argiarekin

INFORMAZIO GEHIAGO  
943 55 01 36 - 699 82 91 98

**AMEGAR**

Etxe tresnak  
Altzariak

Elektrogailuak  
TB- Bideoak-  
HI-FI-Opariak

Sukalde altzariak

Tel.: 943 55 11 25  
Faxa: 943 55 16 03

**SAGARDOTEGIA**

**IPARRAGIRRE**

HERNANIKO SAGARDOA OSIÑAGA AUZOA HERNANI

TEL. 943 55 03 28

Asteazkenetik larunbatera irekita, gaez. Larunbat eguerdiz ere bai.



San Joan Kantaita iaz Gudarien plazan, San Joan suaren bueltan.

## San Joanetarako ekitaldiak aurkezteko epea martxoaren 1etik 18ra da

■ Martxoaren 3an Jai Batzordearen bilera egingo da, Biterin 18:00etan.

GERO eta gutxiago falta da San Joanetarako eta Kultura Batzordeak aurreneko pausok eman ditu programa osatzeko. Festetan ekitaldiak antolatzen dituztenek edo asmoa dutenek martxoaren 1etik 18ra dute eskaria egiteko epea.

Proposamen orriak Udaletxean izaten dira eta eskarian adierazi behar dira ekitaldia beraz gain, hura egiteko behar diren elementuak (aulkiak, megafonia...) eta aurrekontua. Proposamenak Udaletxeko erregistroan utzi behar dira,

goizeko 09:00etatik 13:00-atar bitartean.

**Lehenengo bilera**  
San Joanetako Jai Batzordeak martxoaren 3an egingo du aurreneko bilera, asteazkenean, arratsaldeko 18:00etan. □



Sardina prozesioan. Kale buelta eginda erre zuten plazan.

## Sardina plazan erreta, agur inauteriei

BUKATU dira 2004ko inauteriak Hernanin, atzo sardina plazan erreta. Jendeak negar gogotik egin zuen eta lutoz jantzita herriko neska mutil askok segi zioten sardinari eta bere azken orduetara. Suak sardina erretzeko eta jendea berotzeko balio izan zuen, behin ilunduta hotz haundia egin baitzuen inauterietako

azken egunean.

Karnabalen azkena egun tristea bada ere, atzeraxeago izan zen prozesioan festa giroan atera zenik, txistulari eta dultzaineroen laguntzarekin eta moztaroen babesean.

**Hogeitabostgarrenak**  
Aurtengo inauteriak 25garre-

nak dira, gerra garaian moztu eta Hernanin berriz ospatzen hasi ziren ezkerotik. Inauterietako festek garai batetik behera egin dutela jakinek da, baina, aurtengo ere jende askok parte hartu du ekitaldian eta kalean ere giroa eta jendea izan da, bai eguneko eta bai gaueko festan. □

### ■ HITZ BITAN

#### ✓ IPUI KONTATZEA

**Tailerra bihar.** Ipui kontatzeko ikastaroa bihartik larunbatera da. Ikastaroa Udalak eta Eusko Jaurlaritzak antolatzen dute eta guztira 8 ordukoa da: bihar eta etzi arratsaldeko 17:00etatik 19:00-etara eta larunbatean 9:00etatik 13:00etara, Laubidietan. Irakaslea Granadako Teresa Flores izango da, eta gazteleraz emango ditu klaseak. Tailerra praktikoa da eta ipuiak kontatzearen alde ezberdinak jarriko dira praktikan: eskuekin kontatzea, material ezberdinak erabiltzea (soka, papera...), hondarra erabiltzea eta abar.

#### ✓ KIROLDEGIKO FRONTOIA

**Frontoia alokatzeko zozketa.** Kiroldegiako frontoia alokatzeko zozketa bihar izango da 19:30etan kiroldegiako bulegoetan. Izena ematea atzo bukatu zen eta orain zozketa egitea falta da. Zozketatzen diren orduak arratsaldeko 19:00etatik 21:45etara bitartekoak dira eta frontoia urte osorako hartzen da.

#### ✓ ELKARRI

**Firmak biltzeko boluntarioak.** Larunbatean Elkarririk firma biltzeko egingo du Hernanin eta beste zenbait herritan eta mahaietan egoteko boluntarioak behar dituzte. Hernani eta inguruko 5 herrietan (Umietan, Andoain, Astigarraga, Lasarte eta Usurbil) 30 mahai jarriko dituzte eta asmoa da mahaietan egoteko 100 boluntario lortzea. Prest dagoenak 943 000600 telefonora deitu.

#### ✓ ELUR TXORI

**Bertso bazkaria larunbatean.** Elur Txori elkartearen bertso bazkaria antolatu dute larunbat honetarako. Bertsolariak dira: Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio eta Jexux Mari Irazu. Txarrelak salgai daude Elur- Txorin eta Oindi eta Rioja tabernetan.

#### ✓ TXANTXANGORRI

**Museko partidak.** Gaur Alber eta Pedrok, Balantxa-Balantxaren kontra jokatu dute eta Toño-Kintxok Patxi-Joxe Leonen kontra. Buruz buru Carlos Lopez Luis Garayarren kontra ariko da eta Monroy II Daniel Carreraren kontra. □



#### FELISA ALZURI ZABALA

Andrea

Atzo hil zen, 81 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-

Senarra: Angel Mitxelena; seme-alabak: Jose Antonio eta EVELIA MARTIN, Juan Domingo eta Loli, Maria Rosario eta Jose Miguel Andueza, Jose Maria eta Mertxe Louro; ahizpak: Pepita, Juli eta Pilar; bilobak, ilobak, lehengusuak eta gainetako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitezela GAUR, ASTEAZKENA arratsaldeko SEIRETAN, JUAN BATAIATZAILEA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2004ko otsailaren 25an

Helbidea: Elkano 12 - 5. D

Oharra: Gorputza Orbegozko Ehorzketa Tanatorio berrian (Kiroldegi ondoan) egongo da arratsaldeko 17:00ak arte- Gorputz laguntza bere familia artean egingo da.



#### ZERBITZUAK

##### ☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093  
▶ Udaltzaingoa: 943 333288  
▶ DYA: 943 464622  
▶ Autobusak: 943 556662  
▶ Anbulatorioa: 943 006666  
▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

##### ☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7  
☎ 943 552941  
▶ Gaez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7  
☎ 943 552941

#### IRAGARKI MERKEAK

Itziar Royo Masajista. Masajista, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia, ...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Pisua salgai Elkano kalean. 3 logela, sukaldia, sala, komona, trastero txikia... Erabat amueblatua. Prezioa: 222.375 euro. Deitu: 699 46 14 90

Kotxea salgai. R-19. Prezioa: 600 euro (100.000 pta). Deitu: 699 49 22 82

ESPAINIARI ez

autodeterminazioa

**EKITALDI NAGUSIA**  
Biteri Kultur Etxean

Otsailak 26  
Arratsaldeko 8 retan

euskal herria  
AITORTU • ERRESPETATU